



IÑAKI INTXAUSTIREKIN, ZERAINGO MENDARTEKO BASERRITARRAREKIN SOLASEAN

IM: Kaixo Iñaki, egun on. Zer moduz zaude?

IÑAKI: Aupa Iban, egun on. Ba hementxe, atzo belar lanak egin da gaur lasaiago.

IM: Nola harrapatu zaitu egoera honek zure baserriko lanekin?

IÑAKI: Ba egia esan ez gaude kexatzeko. Ordiziako azokak eutsi dio zailtasunak eta aldaketak izan arren. Eta hemen inguruko jendea ere ari da piska bat kontzientziazten bertako baserriarren beharraz, eta esango nuke bezero berriak ere ari direla inguratzen guregana.

IM: Beraz ari zarete zuen lana egoera berri honetara egokitzen ezta?

IÑAKI: Bai bai. Beno, kontsumo taldeak ditut Urretxu eta Seguran, otarra bidez banatuz. Hau berdin mantendu dugu, ez da egon arazorik. Eta bueno, Ordiziko azokan gertatu zaiguna izan da ba amonan erosketak egitea etortzen ari direla bilobak eta hor harreman politikak ari dira sortzen. Eta gero ba bueno, joan ezin duen jendearentzako ba moldatu degu, Udalaren laguntzarekin azokako produktuak etxeetara banatzea, inongo kosturik gehitu gabe.

IM: Zuen lana merkaturatzerakoan bide berriak ere aurkitu dituzue beraz?

IÑAKI: Bai, Gainera nik uste ongi etorriko dela. Horrela jendeak ikusi egingo du gure lana zerin den eta nola egiten dugun. Nik uste epe laburrera baino epe ertainera izango duela eragina honek. Jendea ohartzeko zer dagoen eta zein diren gure puntu ahulak, eta bertan ekoiztu eta bertakoa kontsumitu behar dela ikusteko, besteen menpe ez erortzeko. Eta gure produktuaren kalitatea baloratuz. Nik uste epe laburrean izango duela eragina. Nahiz eta orain gure baratzeak ez duten poztasun handirik, trantsizio momentuan gaude eta. Baina aurrera begira nik uste oso interesgarria izan daitekeela orain gertatzen ari den aldaketa edo jendearen interes hori.

IM: Beraz, esan liteke agerian geratu dela baserritarrak duen garrantzia?

IÑAKI: Bai. Nik adibide bezala maskarilekin eta arnasmiluekin gertatu dena jarriko nuke. Ohartu gara halako batean ba dena Txinatik ekartzen dela, eta Txinak esaten duenean berak behar dituela edo ez duela, gu ezer gabe gelditzen gara. Eta orduan ba bertakoa bultzatzen hasi dira industrian. Elikagaiekin neurri batean berdina gertatzen zaigu. Elikagai asko dator Hego Ameriketatik eta nahiz eta momentuz ez den gertatu baino honekin ere gauza bera gerta liteke, arrisku bat da. Eta uste dut jendea ari dela horretaz ohartzen.

IM: Eta amaitzeko. Zein da zure ikuspegia guzti honekiko? Eta ondoren zer?

IÑAKI: Nik komentatu nahiko nuke Eusko Jaurlaritzatik gurekiko izan duten mespretxuzko jarrera. Guri esanez guk ez dakigula gure lana egiten edota ez dugula neurririk hartu, jakitun direnean gure neurriak zorrotzak direla. Pertsona bakarrak ukitzen du produktu hori biltzen den unetik bezeroak poltsara sartu bitarte. Eta hala eta guztiz ere, gu boikoteatzen saiatu dira. Beno ez dakit boikoteatu den hitz egokiena, edo ezjakintasuna dan, baina oso jarrera negatiboa eduki dute gurekiko. Eta horren aurrean ba herriak edo jendeak izan duen erantzuna oso indartsua izan da eta horregatik aldatu dituzte neurriak. Eta nik arreta jarriko nuke jendeak gurekiko izan duen jarrera indartsu horretan.

IM: Eskerrik asko Iñaki eta ondo izan.

IÑAKI: Eskerrik asko zuei ahotsa emateagatik. Ondo izan.